



'Berdintasunaren bidea' eta 'Amonari gutuna' Beldur Barik sarietan garaile.- Genero indarkeriaren aurkako astearren baitan, Beldur Barik Jarrerak antolatzen duen lehiaketako Lasarte-Oriako III. edizioko saribanaketa egin zen asteazken arratsaldean. Lehiaketa honetan gazteek genero indarkeriari buruzko haien hausnarketa egiten dute ikus-entzunezko formatuan. Jesus Zaballos alkateak Gloria Fuertes idazlearen hitzekin hasi zuen ekitaldia. Pozik agertu zen urtero lan kopurua handitzen delako, baina bigarren mailako gazteekin lan gehiago egin behar dela ohartarazi zuen. Izan ere, bi maila ezberdinetan 6 lan aurkeztu baitira, 5 bideo lehen mailan eta bakarra bigarrenen. Epaimahaiak mezuaren kalitatea kontuan izan duela azpimarratu zuen eta irabazleak jakitera eman zituen. Lehiaketako lehen mailan, 12 eta 17 urte bitartekoan, 'Berdintasunera bidea' lanak eskuratu zuen saria; bigarren saria, berriz, 'Genero harreman subertituak' lanari eman diote. 18 eta 30 urtekoen mailan, 'Amonari gutuna' lanak irabazi zuen sari nagusia. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusi ahal izan ziren ekitaldian.

3 GIZARTEA Erraustegia eta gizartearen kezkak

'Lasarte-Oria osasuna eta adostasuna' mahai-ingurua burutu zen asteazkenean Landaberri BHN. Herriko hainbat pertsona ezagun bildu eta besteak beste, Zubietako errauste plantaren egitasmoari, hondakinak erraustek osasunean eragin ditzakeen kalteari, gizartea mobilizatzearen garrantziari, erraustegiak herritarrengan eragiten dituen kezkei buruz mintzatu ziren.

3 GIZARTEA Gure Esku Dagok herri galdeketa eguna iragarriko du

Larunbatean, Gure Esku Dago ekimenak erabakitze eskubidearen Lasarte-Oriako galdeketa eguna jakitera emango du jaialdi batekin. Musika eta haurrentzako ekintzak izango dira nagusi Aurretik Atso Bakar eta Zumaburu aldetik bi zutabe aterako dira eta plazan bat egingo dute.



4-5 GIZARTEA Jalgune, 25 urte eta milaka abentura

25. urteurrena ospatzen ari da Jalgune elkarteak. Urtero legez, lan eta lan ibili dira ekimen ezberdinak antolatzen. Baina aurten ekintza berezia egin dute udan, Extremadura aldera astebeteko bidaiak. Egonaldiaren nondik-norakoak azaldu dizkigute. Era berean, atzo, abenduaren 3an, Manuel Leuona kultur etxean egingo duten jaialdia aurkeztu zuten elkarteko kideek.

zerbitzu mistoak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

BIDAIAK TALDEAN

Abenduaren 3tik 8ra Lasarte-Oriatik

ISLANDIA	AZKEN GELA	Aurora borealak	1.940€
- Hegaldiak Bilbotik eta lekualdatzeak barne - Urmael Urdina eta Secret Lagoon - Laguntza espainierazko gidarekin			
MUNICH	AZKEN 4 GELAK	Gabonetako merkatuak	839€
- Hegaldiak Bilbotik - Aireportu-hotela-aireportu lekualdatzeak - Hofbraüus Jatekxan bertako afari Bavariarra			
GURUTZALDIA	BETETA	Guadalquivir ibaian zehar	891€
- Hegaldiak Bilbotik eta barkura lekualdatzea barne - Txangoak aukeran (bulegoan galdetu): Sevilla, Cádiz, Jerez...			

Azken lekuak! **NOAOA BIDAIAK** GRUPO CLICK VIAJA Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria T. 943 373 613 - info@noaobidaia.com www.noaobidaia.com

Nagusia 49, Lasarte-Oria 943 37 02 90

Jantzi denda

INQUIETUD

38-60 neurriak

Neure kabuz



Ane Labaka

Garai berriak

Garai zaharretan erditu gintuzten gu. Gatazka deitzen ziotena ulertzen hasi aurretik egin genituen kartzelara lehen bisitak familian eta idatzi genizkien lehen eskutitzak urrun zeuzkatenei. Albistegietan ikusi eta entzun genituen leherketei buruzko berriak. Garai zaharretan hazi ginen eta gu baino urte gutxi gehiago zeuzkaten gazte mugimenduko kideek beldurrak konpartitu zituzten gurekin: zerrenda beltzak, inkomunikazioaldiak eta torturak.

Garai berriak omen dira hauek. Albistegietan ez da leherketarik ageri, baina guk ezer ulertu gabe jarraitzen dugu. Torturapean egindako deklarazioak oinarri hartuta, lagunek gugandik urrutien dauden espetxeetan jarraitzen dute bahituta. Garai zaharretan ihes egin zuen lagun izoztuak ere herrira itzuli ezinik jarraitzen du arrazoi politikoak tarteko. Gaizki egindako muntai poliziala medio, gure adinkide altsasuarrak espetxeratu berri dituzte.

Garai berriak dira, bake garaiak... Eta azaroaren 25ean bakarrik gogoratzen da gizonek emakumeak menperatzen, erasotzen, bortxatzen eta erailtzen jarraitzen dutela.

Bake garai berriak dira... Baina ohartu naiz ustekabean testuan zehar gehiegitan errepikatu dudala *jarraitu* aditza.


Eta honek ez du garai zaharretan "bake" gisa irudikatzen genuen aroarekin inongo antzekotasunik.

Zorion agurrak



Leire

"Prexioxi" 8 txoko-latezko muxu eta ondo pasa zure egunean, Hiru muxu handi Maialen aiton-amonaren etxekoan partez... eta familien partetik bihotzez.



Haritza

Zorionak "guapisimo". Askok maite zaitugu. Zorionak bihotza!!! Oso ondo pasa zure 4. urtebetetzean eta muxu goxo-goxoak aiatxo, amatxo eta Izaroren partetik.



Anartz

Zorionak bihotza!!! Oso ondo pasa zure 4. urtebetetzean eta muxu goxo-goxoak aiatxo, amatxo eta Izaroren partetik.



Izaro

Zorionak maitia!!! Zeinen handia zauden jada, emakumetxo polit bat egin zaude. Oso ondo pasa zure egunean. Maite zaitugu.



Pau

Urteak betetzen hasi eta dagoeneko lau, zein ederra izan den hau!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Etxebizitza salgai Buenos Aires aldapan. 4 gela, jangela, sukaldea, 2 komun. Dena kanpora. 60 metro karratuko garaje itxia. Terreno propioa du. 667 232 300 edo 617 085 803.
- Garaje marra bat alokatzen da, Caddie plazan, Atsobakar auzoan, zahar-etxearen parean. Zabala da eta sarbide eroso du. 659 021 945.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna edo 'externa'. 696 652 161, Piedad.
- Emakumea eskaintzen da interna modura asteburuetan eta gauetan lan egiteko. 627 206 110, Alba Lucia.
- Erizain laguntzailea tituluduna eta esperientziarekin masajista lana, pertsona adinduak

zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. 622 925 562.

• Aitona-amonak zaintzeko eskaintzen naiz goiz edota gaueko ordutegietan. Titulua eta erreferentziak. 667 090 692.

• Pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Etxerako zerbitzura, Lasarte-Orian ahal bada. Arreta soziosanitari ziurtagiria eta esperientziaduna. 673 381 470.

• Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048 Doris.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Maddi Iradi Arteaga, azaroaren 19an.



Heriotzak

- Jose Antonio San Sebastian Machain, azaroaren 20an, 62 urte zituela.
- Filomena Felipe Felipe, azaroaren 17an, 83 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 25	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 26	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 27	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 28	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteartea, 29	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 30	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 01	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Ostirala, 02	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 03	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 04	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 05	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 06	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 07	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 08	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567


GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa I
Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea Eizagirre,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noniega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidier Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GURASOS

Erraustegia, kezka-iturri

Manifestaziora deitu du GuraSOsek bihar Donostian, 17:00etan



Herritarrek adi jarraitu zituzten hizlarien azalpenak, eta euren iritzi, kezka eta galderak ere plazaratu zituzten mahai-inguruan.

GuraSOsek antolatuta, 'Lasarte-Oria +: osasuna eta adostasuna' mahai-inguruan hartu zuten parte hainbat herritarrek asteazken arratsaldean, Landaberri BHIn. Zubietako erraustegiaren proiektuaz aritu ziren.

TXINTXARRI

Erraustegia egitea irtenbide azkar bat da, baina ez arazoaren konponbidea; atzerapen bat da". Argi eta garbi mintzatu zen asteazkeneko mahai-inguruan Iñigo Suberbiola OEIT taldeko medikua. "Ez dugu etsi behar: Txingudiko proiektua geratu zenean, jada saihestezina dirudien Zubietakoa baino aurreratuagoa zegoen".

Ekimenean alor desberdinetako hizlariak aritu ziren solasean: Iñigo Suberbiola medikua,

Maite Labiano sendagilea, Domi Insausti erizain ohia eta Juan Luis Murua parrokoa. Landaberri zein Sasoeta ikastetxeetako hainbat irakaslek ere hitz egin zuten, baita hitzaldira joandako herritarrek ere.

Gai ugari hizpide

Zubietako erraustegiaren egitasmoaren inguruko hainbat gai jorratu zituzten. Errauste planta batetik gertu bizeneko osasunean eragin ditzakeen kalteak, esaterako. "Hamar kilometro baino gertuagora bizi direnen minbizi-tasak

%3-4 igotzen dira, batez beste", esan zuen Suberbiolak. Haurren zaugarritasunaz aritu zen Labiano: "Eragin handiagoa dute haiengan isurkin toxikoei, sistema immunologikoa ez daukatelako helduek bezain garatua".

Insaustik hainbat kezka plazaratu zituen: "Proiektua egingo balitz azkenean, isurkinen kontrolek jarraituak eta publikoak izan behar lukete". Murrak, bere aldetik, aipatu zuen hondakinak tratatzeko aukeren inguruko "eztabaida gehiago" falta dela.

Manifestazioa bihar

GuraSOsek manifestaziora deitu du bihar arratsaldean. Donostiako Araba plazan (EuskoTren geltoki ondoan) jarri du hitzordua, 17:00etan.

MUNTTERI-AEK

20. Korrikako materiala

Muntteri-AEK euskaltegiak hurrengo urtean egingo den 20. Korrikako materiala salgai du Geltoki kaleko egoitzan.

Emakume, gizon, zein haurrentzako kirol-jantziak, kamisetak, lepokoak edo txanoak eta agenda ere eskuragarri daude.

Interesa duenak hurbildu dadila Muntteri-AEKra.

SAN SILVESTRE LASTERKETA

Enpresa, ostalari eta denden elkarlanaren bila

Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketako antolatzaileek iazko SSLO2015ean parte hartu zuten enpresei eskerrak eman nahi dizkie, lasterketa arrakastatsua izan zedin elkarlanean aritu zirelako.

Horren ildotik, aurten ere Lasarte-Oriako enpresa eta denda desberdinak gonbidatu nahi dituzte bere produktu edo/eta sariak eskaintzera, gerora lasterketako parte-hartzaileen artean zozketatu ahal izateko.

Azpimarratu dutenez, antolakuntza-taldeak aipamen berezia egingo die parte hartzen duten enpresei bere komunikazio sare desberdinetan.

Azaroaren 30a izango da kolaboratzaile talde honetan sartzeko azken eguna. Interesa duten enpresa, ostalari eta dendak Facebook bitartez jar daitezke harremanetan antolatzaileekin, www.facebook.com/SanSilvestreLasarteOria.

DIRU LAGUNTZAK

Eskolaz kanpoko eta kultur arloko jardueretarako diru-laguntzak

Dagoeneko kultur jardueretarako diru-laguntzak eska daitezke. Kultura sustatzeko eta zabaltzeko alorrean interes orokorreko jarduerak eragiten duten erakunde edo elkarteentzat dira.

Kultura sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak arteekin, zientziekin, historiarekin, kultur ondarearekin eta letrekin lotuta egongo dira. Animazio sozio-kulturalekoak, berriz, hauek izango dira: aisialdikoak, sormena bultzatzekoak, herritarren parte-hartzean oinarrituta Bizilagunen Elkartearen ekitaldiak sustatzeko direnak, eta arte eszenikoak, plastikoen, literaturaren eta musikaren alorrean jarduerak antolatzea helburu dutenak.

Eskolaz kanpoko jardueretarako laguntzak ere, pertsonen osatutako elkarteei edo taldeei zuzenduak daude, betiere herrian eskolaz kanpoko heziketaren eta gurasoen prestakuntzaren alorrean interes orokorreko jarduerak eragiten dituztenean. Hauek eskolaz kanpoko alorrean, ikastetxeetako ikasleei eta haien gurasoen prestakuntzari zuzenduta egonik, Lasarte-Oriako Udalaren ekimenean osagarri edo ordezko izango dira.

Atzerako kontua hasi da

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago dinamika bihar, larunbata, jakinaraziko du erabakitze eskubidearen aldeko herri galdeketa data. Okendo plazan, goizeko 12:15ean, festa giroan emango du ezagutzera kontsultaren eguna.

Lehentxeago, eta motorrak berotzen hasteko, zozketako irabazleek globoa aerostatikoan bidaiatuko dute herriko zerutik. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, eguraldi txarra eginez gero, hegaldia igandean egingo da.

Ekimena

Egun honetako ekimena, 12:00ak aldera hasiko da. Horretan, bi herritar zutabe aterako dira Atsobakar eta Zumaburu auzoetatik herriko erdialderantz.



Urte hasieran galdeketa egiteko sinadura bilketa egin zen. Orain galdeketa eguna igorriko da.

Okendo plazara iritsi eta galdeketa eguna iragarriko dute Gure Esku Dago taldeko kideak.

Musika eta txikientzako ekintzak izango dira, baita mokadua eta edatekoa hartzeko txosna eta arropa postua ere.

Gure Esku Dago ekimenak lasarteoriatar guztiak gonbidatu nahi ditu ekitaldi honetara, euskal herritarren erabakitze eskubidearen gaineko herri galdeketa abiaraziko duen atzerako kontua aktibatuz.

Udalak hitzarmena sinatu du EDPekin

Pobrezia energetikoari aurre egiteko elkarlan akordioa sinatu du Lasarte-Oriako udalak EDP enpresarekin. Diru laguntza lerro berria martxan jarri nahi du Udalak Gizarte Zerbitzuetan, herrian argia eta gasaren faktura ordaindu ezin duten bizilagunek hauei aurre egin ahal izateko.

Jesus Zaballos alkateak aipatu duenez, bizilagun batek hainbat faktura ordaindu gabe dituen enpresak Udalari egoera aztertze abisua emango dio. Horrela izanda, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak pertsona edo familiaren egoera gainbegiratu dute diru-laguntza emateko.

Udalak faktura horiek ordaintzeko dirua eman eta erabiltzaileak kontratatuta daukan kontsumoa zein den aztertuko du gastuak neurritu

eta kontsumo efizienteago bat bilatze aldera. EDPko Carlos Luengosek horri eman dio garrantzia, eta baita zerbitzu mozketa ez egiteari, hori baita akordioaren helburua.

Alkateak esan duenez, Lasarte-Oria, Logroño eta Bilboko udaletxeen atzetik, halako akordio bat sinatzen hirugarrena izan da. Diru laguntza lerro berri honen zenbatekoa berriz, onartu gabe dagoen arren, batzordetik eta udalbatzarretik pasa behar da, 10.000 euro ingurukoa izatea espero da.

"Ez ditugu diru laguntza ezberdinekin mendeko herritarrek sortu nahi, tresna ezberdinak eman nahi dizkiegu euren egoeraz jabetuta, laguntzak kudeatu eta egoera zail horietatik ateratzen laguntzeko," adierazi zuen alkateak.



Pausoka-pausoka 25 urte

Extremaduratik ibili ziren Jalgunekoak udan urteurrena ospatzeko

Jalgunek 25 urte betetzen ditu eta modu berezian ospatzeko egonaldia egin zuten Extremadura aldean udan. Bertan herri ezberdinetako elkarte eta jendearekin izan ziren eta lagun berri pila egin zituzten. Jalguneraren helburua herrian aniztasun funtzionala duten pertsonen egokitzatzen den aisia aukera bat eskaintzea da baina haratago doa lortutakoa, begirale eta taldeko kide zein familiek, lagun talde bat osatzen dutela diote.

TXINTXARRI

Jalgune elkarte, duela 25 urte sortu zen gurean behar espezifiko bati erantzuna emateko. Gaur egun ordea, bertan dabilzan begirale eta erabiltzaileen hitzetan, "lagun talde bat" dira.

Elkartearen helburua, herri mailan aniztasun funtzionala duten pertsonen egokitzatzen den aisia aukera bat eskaintzea da.

Eta hain zuzen ere, ondo pasa eta aisian erreferentia izatea helburuetan oinarrituz; urte hauetan Jalgune hazten joan da, lasarteoriarekin batera.

Elkartearen bilakaera nabarmena izan da, "lan handia egin dugu barrutik kanpora. Lan honen isla, gaur egun herri mailan elkar-

te eta herritar askorekin lortutako lagun sarea da".

Jalgunextrem!

25. urteurrenaren ospakizunak direla medio, astebeteko bidaia egitea erabaki zuten Jalgune osatzen duten kideek (hezitzaile taldeak, familiak eta gazteek). "Lasarte-Oriako herritar bezala, harro sentitu eta bizi nahi dugu gure herria, eta hori da gure egunerokotasunaren oinarria".

Oraingoan, ospakizun berezia egin nahi zuten, "gurean egiten duguna beste herrietara zabaldu nahian".

Jalguneraren hasierako urteetan astebeteko bidaiak egiten zituzten. Salbuespen modura, egitasmo hori errekuperatzea pentsatu zuten egungo begirale eta kideek. "Gazteen proposamenak



Hamaika ekintzez gozatzeko aukera izan zuten begirale zein gazteek.

abiapuntutzat hartuta, gure egungo helburuekin bat zetorren bidaia antolatzea pentsatu genuen. Hezitzaile taldeak, familiei eta gazteei aukera desberdinak aurkeztu genizkien eta bilera partehartzaileen bidez, denon artean urteurrenaren ospakizuna erabaki genuen".

Abuztuaren bukaeran astebeteko bidaia egin zuten. Bertan, 23 pertsona izan ziren, 14 gazte eta 9 hezitzaile.

"Bidaiaren balorazioa bikaina izan da, ezin hobea. Egon garen herrietako elkarte eta eragileekin izan dugun hartu-eman oso aberasgarria izan da. Gurean bezala, bidai honetan ere harreman politikak sortu dira pertsona eta elkarte desberdinekin, adin guztietako pertsonekin arituz gara".

Hamaika ekintza egin zituzten Extremadura aldean. Aurretik ezagutzen zituzten ekintza erakargarriak eta

beste hainbeste berri: inguruko herriak ezagutu, igerilekuan bainuak, asto karrera, txaranga, parranda... Giro ederra izan zuten euren artean eta "tratu bikaina jaso dugu leku guztietan". Batez ere Arroyo de la Luz herrian eta Galisteo herrian.

Lehenengoan, egun pasa egin zuten eta udalak egingo dako harrera bikaina izan zen. Bertako aniztasun funtzionala duten pertsonen elkartearekin egoteko eta



Aisialdirako tartetz gain, ikuskizuna ere prestatu zuten Jalgunekoek Galisteko plazan, bertara herritar andana gerturatu zen eta txalo zaparrada luzeak jaso zituzten,

harremanak egiteko aukera izan zuten ere. Udal ordezkariak harrera egin eta gero, bisita gidatua herriko txoko kuttunenak erakutsi zizkien.

“Herriko dantza talde batekin aritzeko aukera izan genuen baita zeramika tailer bat egiteko ere. Folklorea, historia, kultura eta ohiturak erakutsi zizkiguten. Bukatze-ko, bertako gastronomia probatzera gonbidatu gintuzten. Ederki bazkaldu genuen!”.

Caceres hiriburua eta Hurdeseke zonaldea ezagutu eta gero, Galisteo herrian pasa zituzten hurrengo egunak.

Herriko etxeoandreen elkartearekin sukaldaritza tailerra egin zuten, bertako sevillana taldearekin batera pare bat dantza ere prestatu zituzten, “azkeneko egunean herriko plazan ekitaldi bat egin genuen, batzar orokor bat “egin genuen” udaletxean eta azkeneko goizean golf egokitua federazioarekin golf saio oso berezia”.

“Esperientzia berri hau gogoratzeko modukoa izango zelakoan geunden, eta gure aurreikuspen guztiak gainditu ditugula esan dezakegu! Hungigarria eta ahaztezina!”, adierazi digute.

Ahaztezina

Egondako herrietako ordezkariekin harreman onak sortu ziren eta orain, denboran mantentzea izango dute helburu Jalgunekoak.

“Gazteei dagokionez, beraien balorazioak oso onak izan dira eta gaur egun oraindik aipatzen dituzte Extremaduran udako egonaldian biziak gauzak, ikasitakoak, etab. Horrek asko poztzen gaitu! Ezin baitugu ahaztu beraiek direla abiapuntua eta oinarria Jalgunen”, azpimarratzen du begirale taldeak.

Jalguneren jaialdia abenduaren 3an egingo da, Manuel Lekuonan

Jalguneko kideek atzo aurkeztu zuten urtero egin ohi duten jaialdi handia. Aurtengoa, herriko hainbat elkarteetako lagunak ere izango dituzte lagun egun honetan. Datorren larunbatean, abenduaren 3an izango da jaia Manuel Lekuonan 18:30ean. Sarrera doan da eta elkartetik herritarrek animatzen dituzte bertaratu eta eurekin goatzera.

TXINTXARRI

Atzo aurkeztu zuten Jalguneko kideek aurtengo jaialdi berezia: ‘25 años de imperfecciones, 10eko jaialdi!’. Abenduaren 3an izango da, aniztasun funtzionala duten pertsonen egunean, 18:30ean Manuel Lekuonan.

“Zer da inperfekzioa? Hiztegiak dioenez: Ona edo hobereza izateko, behar diren ezaugarriak ez izatea. Onena, helburua eta desiragarria dena beti perfekzioa izan behar du?”, hasi ziren Jalgunekoak.

1991. urtean Jalgune lehenengo pausuak ematen hasi zen herrian.

“Ibilbide honetan mota askotako esperientziak ezagutu ditugu: atseginagoak batzuk, zailak, pozgarriak eta emozioz betetakoak besteak. Hauek guztiak hala ere, guretzako aberasgarriak izan dira, guztietatik ikasi dugulako eta argi dago ez direla perfektuak izan”, adierazi zuten Jalguneko begirale eta erabiltzaileek.



Jalguneren hamargarren jaialdia izango da aurtengoa. Era berean, elkarteak 25 urte bete ditu.

25 urte hauetan Jalgunek bidelagun asko aurkitu ditu. Eta pertsona hauek elkartearen izaeran eragina izan dutela aipatu zuen Beatriz Alonso begiraleak, “izaera inperfektuan. Inperfekzioa gizakiaren berezko ezaugarrietako bat baita. Inperfektua izatea erreala izatea da, gure gabezi, ezaugarri eta ahalmen guztiak. Ez dago perfektiorik inperfektiorik gabe!”.

Paregabea

“25 urtetan perfekzioa ez dela bilatu behar ikasi dugu, ezberdintasuna baizik, berezi eta bakarrak egiten gaituena baita. Paregabeak alegia”, atxiki zuen begiraleak.

Jalgunentzat ospakizun urteaz gain, 2016. urtea hausnarketa urtea ere izaten ari dela aipatu zuen Pili Ber-

mejo begiraleak agerraldian. “Urte hauetako ibilbidean lortutakoaz jabetzeko eta ezarritako helburuak lortzeko gaitasunaren inguruko hausnarketa egiteko. Hau guztia gure ditugun ahalmen, gabezi eta ezaugarrien ondorio izan da”.

Abenduaren 3a aniztasun funtzionala duten pertsonen eguna da. Horregatik, aipatuz zuen Pili Bermejok “egun aproposa da pertsonak bereziak, berdinak, errealak eta inperfektuak garelako ospatzeko”.

Horregatik, beste behin eta hamarkada beteaz, Jalguneko parte hartzerak eta ongi pasatzera gonbidatu nahi ditu lasarteoriatarrak;

Abenduaren 3an, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako trikitilariak Manuel Lekuonako inguruak

alaitu eta jaialdira deituko dituzte herritarrek.

Festari, besteak beste, Semblante Rocieroko abesbatzako lagunak, Euskararen Maratoiko zortzikoteko kideak eta Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako Trikitilariak hartuko dute parte.

Ordu pasatxo izango duen ikuskizunak denetarik izango duela aurreratu zuten eta ilusio handiz prestatutakoa, “ziur ikusleen gustukoa izango dela”.

Prensaurrekoa eta gero, jaialdirako prestatzen ari diren emanaldiak entseatzeko hasi ziren Jalguneko kideak, giro ederrean, abenduaren 3an dena ongi irten dadin.

Sarrerak eskuragarri

Sarrera doako da, baina aurrez hartu beharko dira Manuel Lekuona kultur etxean bertan.



ORAIN EKONOMIA

Ekonomia **Suspertzeko** Plana

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

200M€
2015 > 2019

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

LABURRAK.-

Beltzak errugbi eskolako kideak Anoetan

Goi-mailako errugbiaren gozatu zuten Beltzak errugbi eskolako hainbat kidek pasa den asteburuan, Anoeta estadioan. AEB eta Tongak elkarren aurka jokatu zuten. Aurrez ere jokatu izan dira errugbi neurketak bertan, baina larunbatean aurreneko bi selekzio aritu ziren aurrez aurre. Gauzak horrela, ikusmira handia sortu zuen norgehiagokak zaleen artean. Tonga nagusitu zen, 17-20.



Bestalde, harrobiko Beltzak taldeek hainbat partida jokatu zituzten asteburuan zehar. 18 eta 16 urtez azpiko Gure Etxea Beltzak taldeek Getxo RTrekin neurtu zituzten indarrak; 10-60 galdu eta 33-12 irabazi zuten, hurrenez hurren. 14 urtez azpikoek Hernaniko Zubipe zelaian egindako jardunaldian hartu zuten parte: hiru partida jokatu zituzten gaztetxoek, eta guztiak irabazi zituzten.

Donostiako Urrezko Danborrerako Maialen Chourrauten hautagaitza aurkeztu dute

Atletico San Sebastian klubak Donostiako Urrezko Danborrerako Maialen Chourrauten hautagaitza aurkeztu du. Hainbatek babestu dute honezkerok proposamena: Atletico SSren presidentea Pedro Garcia, Espainiako Piraguismo Federazioko lehendakari Juanjo Mangas, Naroa Aguirre atleta olimpikoa edota Martin Berasategui eta Juan Mari Arzak sukaldariak, besteak beste.

Piraguista lasarteoriatarren hautagaitza babestu nahi duen orok Atletico SSren Donostiako egoitzara hurbildu eta sinatu egin beharko du. Urrezko Danborra urtero ematen da, urtarrilaren 20an egiten den ekitaldian.

Kattagorri Insausti herriko txapelketako lidertzan

Herriko areto-futbol txapelketako lehen itzulia amaitzeko hiru jardunaldi falta direla, Kattagorri Insausti taldea dago sailkapenaren lehenengo postuan, 21 punturekin. Orain arte ez dute norgehiagokarik galdu: sei irabazi dituzte eta hiru berdindu. Trumoi da bigarren sailkatua (liderrak baino partida bat gutxiago dauka jokatuta), 19 punturekin. Hirugarren eta laugarren postuan Kebab Taberna eta Urdaneta Hertz Klinika daude, bakoitza 16 punturekin. Golegile nagusia Kattagorri Insaustiko jokalaria Ander Petxarroman da; 19 gol sartu ditu honezkerok.

Talde federatuek ere han eta hemen jokatu zuten asteburuan zehar. Hauek izan ziren emaitzak: Ostadar Antonio Aroztegia 2-5 Elorrioko Buskantza (3. Nazionala); ISU Leihoak 2-3 The Nest Hirukide eta Lauburu Aldaz 4-1 Cecilia Kebab Lasarte Ostadar (Gipuzkoako 1go maila); eta Lasarte Kafe Bar 14-1 Zarautz B eta Zarautz 4-4 Kafe Bar Buenetxea (jubenilak).

JUDO.-

LOKEko judokak lehia azaroan zehar

Josu Olmos azpitxapeldun izan da Gipuzkoako txapelketan

Zeresana ematen ari dira kategoria desberdinetan lehia ari diren LOKEko judokak azaroan zehar. Josu Olmos seniorra, esaterako, Gipuzkoako txapelketako azpitxapeldun izan da Eibarren, eta bertan jokaturako jiu-jitsu lehiaketa ere irabazi du. Juniorrak berriz, Espainia-ko superkopian aritu dira.



Josu Olmosek (zutik, erdian) jiu-jitsu txapelketa irabazi zuen Eibarren. GORKA ARISTEGI

TXINTXARRI

Hilabete esanguratsua izaten ari da azaroa LOKEko judokentzat. Eta, bereziki, batentzat: Josu Olmos seniorarentzat. Bikain ekin zion hilabeteari, aurreneko asteburuan (5ean, zehazki) Eibarren jokaturako jiu-jitsu txapelketa irabazita, 62 kilo azpiko kategoria. Dena den, orduko hori ez zen izan Olmosek podiuma zapaldu

zuen aldi bakarra, hurrengo egunean azpitxapeldun izan baitzen senior mailako Gipuzkoako txapelketan. Zilarrezko domina kolporatzeaz gain, Euskadikorako sailkatzea lortu zuen herritarra. LOKE taldeko Haritz Urdangarin ere aritu zen txapelketa horretan, maila oso ona emanez eta bosgarren postua eskuratuz.

Bestalde, junior kategoria-ko lau judoka Amurrion joko-

tutako Espainiako superkopian aritu ziren borrokan tatami gainean: Fermin Balda, Eneko Eizagirre, Haritz Urdangarin eta Mikel Lasa. Azpimarratze-koak dira Baldak brontzeagatik borrokaldia galdu zuela eta Eizagirrek zazpigarren postua erdietsi zuela.

Lehia murgilduta

Datozen egun eta asteetan beste hainbat hitzordu dituzte LOKEko judoek egutegian gorri kolorez markatuta.

Bihar gerriko beltza esku-ratzeko azterketak egingo dituzte hainbatek, Tolosan.

Abenduaren 10ean, berriz, senior mailakoek Kopa jokatuko dute Valladoliden, eta, kadeteek, Iruñean.

Urtea amaitu aurretik, senior mailako judoek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute. Abenduaren 17an izango da hitzordua.



Esquer-eskuin, Mikel Lasa, Haritz Urdangarin, Eneko Eizagirre eta Fermin Balda.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 26

Michelin, 12:30ean

Ostadar SKT - Añorga KKE
Kadeteen Ohorezko maila,
11. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa
Emakumezkoen Lurralde maila,
10. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Texas Lasartearra - Usurbil FT
Erregionalen 1go maila,
11. jardunaldia.

Michelin, 19:00etan

Ostadar SKT - Añorga KKE
Jubenilen Ohorezko maila,
11. jardunaldia.

Igandea 27

Michelin, 14:30ean

Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa
Jubenilen 1go maila, 11. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa

Ostirala 25

Kirol gunea, 19:45ean

Ibaros Latino - Trumoi Taberna

Kirol gunea, 20:45ean

Also Taberna - Ilargi Taberna

Olaederra kiroldegia, Billabona, 20:30ean

Egarri Taberna - ISU Leihoak

Gipuzkoako 1go maila, 10. jardunaldia

Larunbata 26

Kirol gunea, 09:30ean

Aita Amari Taberna - Izkiña Taberna

Kirol gunea, 10:30ean

Kebab Taberna - Txoko Taberna

Kirol gunea, 11:30ean

Urdaneta HK - Kattagorri Insausti

Kirol gunea, 12:30ean

Viña del Mar - Reformas Lagunak

Uzturpe frontoia, Tolosa, 10:30ean

Teep Samaniego - Lasarte Kafe Bar
Jubenilak, 7. jardunaldia.

Kiroldegia, 11:00etan

Kafe Bar Buenetxea - Erain
Jubenilak, 7. jardunaldia.

San Ignazio kiroldegia, Bilbo, 18:30ean

Bilbo FS - Ostadar Antonio
3. Nazional maila, 11. jardunaldia.

Igandea 27

Kiroldegia, 11:00etan

Cecilia Ostadar - Tellatuberry Zaldibi
Gipuzkoako 1go maila, 10. jardunaldia.

SASKIBALOIA

Ostirala 25

Kiroldegia, 20:30ean

Ostadar SKT - Loyal Gamon
Senior gizonetzkoen 3. probintziala,
3. jardunaldia.

Larunbata 26

Astigarraga kir., Astigarraga, 16:00etan

Astigarraga Mundarro - Ostadar SKT
Senior emakumezkoen 1go probintziala,
2. fasea, 2. jardunaldia.

Kiroldegia, 18:00etan

Añorga Saskibaloia - Ostadar SKT
Partizipazioko kadete neskek,
6. jardunaldia.

Igandea 27

Benta Berri kir., Donostia, 10:00etan

Bera Bera - Ostadar SKT
Errendimenduko kadete neskek,
10. jardunaldia.

Bidebieta kir., Donostia, 12:00etan

Easo 99 - Ostadar SKT
Errendimenduko junior neskek, A1 liga,
11. jardunaldia.

LASTERKETAK

Igandea 27

Donostia, 09:00etatik aurrera

Herriko 28 lasterkerik Donostiako
39. Maratoian hartuko dute parte.
Maratoi erdian (21 km.) berriz, 11
izango dira herriko korrikalariak,
eta, azkenik, 10 kilometroko
lasterketan, 14 herritar ariko dira.

IGERIKETA

Larunbata 26/Igandea 27

Majori kiroldegia, Ordizia

Buruntzaldea IKTKo igerilari infantil,
junior eta absolutuek Gipuzkoako
Klubon Kopa jokatuko dute.

PILOTA

Igandea 27

Ogeta pilotalekua, Gasteiz, 17:00etan

Arteaga II - Imaz / Elordi - Cecilio
Eskuz binakako partida. Jaialdiko
hirugarrena izango da.

ERRUGBIA

Larunbata 26

Michelin, 10:00etan

14 urtez azpikoentzat topaketa
antolatu du federazioak.

El Fango, Bilbo, 17:00etan

Universidad de Bilbao -
Babyauto Zarautz
Ohorezko B maila, 9. jardunaldia.

Agenda

Larunbata eta igandea, 17:00etan eta 19:30ean, Manuel Lekuona Kultur etxea



Beldurrak landuz

Asteburuan, 'Un monstruo viene a verme' filmaren saio bikoitza eskainiko da haur eta helduen saioetan. Patrick Ness idazlearen liburuan oinarritutako istorioa aurkezten du Juan Antonio Bayonak. Conor O'Malley 13 urteko gaztetxo da. Bere gurasoen banaketa, amaren gaixotasunak eta eskolan sufritzen duen jazarpenak fantasiako mundu batean bizitzera darama, bertan bere beldurren aurka borrokatzen du. Sarrera, haurren saioa, 3,80 euro eta helduen saioa, 5,50 euro.

II. Reggae Fever Fest

INSAUSTI TABERNA

Larunbata, 18:00etan

Marcos Carnaby eta Runto Selektorra djen pintxada.

ELEBETZ TOPAGUNEA

Larunbata, 23:00etatik aurrera

Skabidean eta Euskatalites taldearen kontzertuaz gozatu ahalko da. Ondoren, Artwood 69 eta Sir Gorka djen saioa. Sarrera, 8 euro.

Plaza dantza

OKENDO PLAZA

Igandea, 12:00etan

Hilero bezala, muxikoekin eta plaza dantzekin gorpuzta astintzeko aukera izango da.



Lasarte-Oria

Genero indarkeriaren aurkako astea

OKENDO PLAZA

Ostirala, 11:00etan

Ibilaldi osasuntsua egingo da.

Ostirala, 12:00etan

Genero indarkeriaren aurkako egunean, elkarretaratzea egingo da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 29, 18:00etan

Iratxe Alvarez Eraso sexisten aurkako Emakumeen plataformako kidea, besteak beste, 'Jaiak ere gureak dira', indarkeria matxista jaietan eta herritarren mobilizazioen paperari buruz jardungo da.

Ostirala 2, 19:30ean

Emakumeen Zentro Zibikoko Makelur antzerki taldeak 'La eterna juventud' lana eskainiko du. Sarrera, 3 euro.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen zine forum atalean, 'Neruda' filma ikusi eta aztertuko da. Sarrera, 5,50 euro.



Sari banaketa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 12:00etan

Lasarte-Oriako Haur eta Helduen Literatura lehiaketetako sari banaketa egingo da.



Bertsipoteoa

FURIA BELTZA

Larunbata, 19:00etatik aurrera

Furia Beltza, Avenida, Trumoi, Elurtza eta Ilargi tabernetan punk, rock eta reggae bertsipoteoa egingo da.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 28, 19:00etan

Baketik fundazioak antolatuta, 'Mujeres y procesos de paz: Euskadi y Guatemala' hitzaldia izango da entzungai. Honen barruan 'Ozpinares sindromea' dokumentala ikusgai izango da.

Usurbil

Erle Eguna

PILOTALEKUAN

Igandea, 09:00etatik 14:30era

Ezti eta gozogintza, erakustaldiak, postuak, marrazki lehiaketa... izango dira.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, azaroaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

1966.urtean jaiotako afaria

1966.urtean jaiotako afaria. El Jardin jatetxean izango da eta izena eman edota informazio gehiago eskuratzeko, Lourdes (667531760) edo Yoli (619522357).

Eskutitza

Erraustegirik ez

Zubietako herriak gipuzkoarrei,

Duela gutxi erantzun dugu gure herrian inoiz inork inori Gipuzkoan egin ez dion galdera: erraustegia egitea nahi al duzu? Zubietarrok argi esan dugu: EZ. Zubietarrok %64,7k Erraustegia Erabakiak antolatutako galdeketa parte hartu du, eta horietatik %99,6k ezezko erantzuna baieztatu du. Urte hauetan guztietan gure iritzia beste hainbat modutan adierazi izan dugun arren, orain altu eta ozen esan dezakegu gure herriak ez duela Gipuzkoan erraustegirik egitea nahi. Ez dugu nahi, ez; ez gure herrian ezta beste inorenean ere; guretzat nahi ez duguna ez baitiogu beste inori opa.

Garbia da zubietarrok gipuzkoarrei eta denon arduradun politikoei egiten diegun eskaera: erraustegiaren lizitazio prozesua gelditu eta hondakinen arazoari aurre egiteko guztion artean inori kalterik egingo ez dion sistema bat ados dezagula, erraustegirik gabekoa alegia. Izan ere, erraustegia eraikiz gero, gipuzkoarrei

eragingo digun kaltea nabarmena da: osasunean, ekonomian, ingurumenean... Gu ez gara adituak, baina egunero batetik eta bestetik entzuten ari garen datuek ikara sortzen digute. Benetan gipuzkoarrok prest al gaude erraustegiak ekarriko digun zorpetze ekonomikoari aurre egiteko? Badakigu erraustegia ordaintzeko zein zerbitzu publiko galduko ditugun?

Gure ustez, Gipuzkoako herritarrok ez gaude behar bezala informatuak erraustegiak ekarriko dizkigun ondorioez, eta agintariek dute horren errua. Gai hau ez dute guztion artean eztabaidatzerik nahi izan eta tematurik daude erraustegia eraikitzearekin. Horren adierazle garbia da zubietarrok ez garela aintzat hartuak izan ez Donostiako Udalean, ezta Gipuzkoako Foru Aldundian ere. Lotsagarria iruditzen zaigu gure udaletako batek bere herritarrei erantzunak emateko adorerik ez izatea, Donostiako Udalak ez baito erantzun gure bilera eskaerari.

Zubietarrok hitza errespetatua izateko bermea eskatu nahi genion, bere herritarren nahiak babesteko alegia, besterik ez. Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak ere jarrera bera izan du gure aurrean, gure txikitasunak eskariari garrantzia kentzen diola dirudi.

Hala eta guztiz ere, ziur gaude gipuzkoarrok gure jarrera ulertzen duzuela guk zuen elkartasunean sinesten dugun moduan. Ziur gaude zuek ere ez duzuela nahiko besteentzat zuentzat nahi ez duzuen hori. Horregatik, azaroaren 26an Donostiako kaleak betetzeko deia egiten dizuegu GURASOsek antolatutako manifestazioan parte hartuz. Guztion artean hondakinen afera konponduko duen irtenbide bat ados dezakegu eta demokrazian horixe da egin beharrekoa, inposaketarik gabeko irtenbidea aurkitzea alegia.

Zubieta Lantzen

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus

Genero indarkeria eta bere aurpegiak

Gaur, genero indarkeriaren aurkako egunean, elkarretaratzea izango da Okendo plazan

Genero indarkeriaren aurkako astea martxan dago. Asteleheneretik egunero ekintza bat burutu da gaia ikusgarri egin eta herritarrengana iristeko. Ipuin-kontalariak, sari banaketa eta dokumentala izan dira gaurko eguneko aurrekari.

TXINTXARRI

A tsobakar zahar etxeako kide eta familiak astelehenera Emakumeen Zentro Zibikoko ipuin kontaketa izan zuten.

Asteartean, berriz, indarkeria psikologikoa ere genero indarkeria dela adarrikatu zen.

Irantzu Varelak eta Faktoria Lilak egindako 'Él nunca me pegó' dokumentala aurkeztu zuen Manuel Lekuona kultur etxeak hitzaldi aretoan.

Dokumentalak bikote heterosexualetan eman daitekeen indarkeria psikologikoa agerian uzten du. Honi aurre egiteko, amodio erromantikoaren estereotipoa hautsi behar dela azaltzen du.

Horretarako, indarkeria psikologikoa pairatu duten hiru emakumeren testigantza aurkezten da dokumentalean. Emakumeek haien bizipenak azaldu eta bikote harreman horietatik nola atera ziren azaltzen dute.

Aretora hurbildu ziren herritarrek ikustaldia amaitzean, haien galderak egiteko aukera izan zuten. Solasaldi ederra sortu zen.

Bestalde, Kontu Kantoiko lagunek, atzo, berdintasunean oinarritako ipuinak kontatu zizkieten 6 eta 8 urteko haurrei. Hauek ederki gozatu zuten istorioez.

Genero indarkeriaren aurkako eguna

Gaur genero indarkeriaren aurkako eguna dugu eta hainbat ekitaldi antolatu dira.

11:00etan, 'Ondo ibili' ibilbide osasuntsua ekimenak bat egingo du.

Ekitaldi nagusia 12:00etan izango da, Okendo plazan. Elkarretaratzea egingo da eta bertan ekintza sinboliko modura aurten erahil duten emakume bakoitzeko zapata pare gorri bat jarriko da.

Amaitzean, Ganbo kalean, banku bat morez margotuko da, urtean zehar ere genero indarkeria gogoan izan dezagun.



Irantzu Varelak 'Él nunca me pegó' dokumentala aurkeztu eta honi buruzko solasaldia zuzendu zuen.



Kontu Kantoiko kideek esate baterako, herensuge baten istorioa kontatu zieten etxeak gaztetxoak.



Ttiriki Tarraka eskolako kideek eguraldiari aurre eginez Santa Zezilia ospatu zuten asteartean.



Udal Musika eskolako kideek asteazkenean emanaldi txikia egin zuten Manuel Lekuonan.

Musikarien eguna ospatzen

Asteartean Lasarte-Oriako hainbat elkarte eta erakunde Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna ospatu zuten. Hau presente egiteko astean zehar ekintza ezberdinak egin dituzte.

Ospakizunetan lehenak, Alboka Abesbatzeko kideak

izan ziren. Igandean, zaindariaren ohorezko meza izan zuten Arantzazuko Amaren elizan.

Abesbatzako kideek, meza nagusia girotu zuten. 'Zein gozo eta eder'. X. Sarasolaren 'Ave Maria', Molfinoren 'O sacrum convivium' eta I. Elberdinen 'Arantzazuko ama'

abestiaren moldaketa eskaini zituzten.

Ostean, abeslari eta bazkideek giro ederrean bazkari bereziaz gozatu zuten.

Kalea girotu

Santa Zezilia egunean bertan, Ttiriki Tarraka eskolako

trikitilari eta pandero joleak atera ziren kalera.

Eguraldiari aurre eginez herriko kaleak alaitu zituzten haien doinuekin.

Asteazkenean berriz, Udal Musika eskolako kideen doinuekin gozatu ahal izan zen. Izan ere, asteartean jai izan baitzuten.

Euria egiten zuenez, erdialdeko kaleetatik kalejira egin beharrean, Manuel Lekuona Kultur etxeak

Arkupetan egin zuten ekitaldi txikia.

Bertan Josu izagirre irakaslearen zuzendaritzapean, hainbat instrumentuetako ikasle eta irakasleekin doinu ezagunak eskaini eta dantzatu zituzten, hala nola, 'Ikusi mendizaleak' edo 'Zazpi jauzi'.

Euskal Herriko Musika eskolek egun honetarako bereziki duten 'Musikalean' abestia ere entzun zen.